GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0101 - Diputatu Nagusiaren Alorrareko Idazkaritza
Programa: 010 - Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritza
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Beharraren deskribapen xehatua:

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0110 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Programa: 100 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Azken urteotan aurrerapauso handiak ematen ari diren arren, oraindik urrun dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaz hitz egitea. Horregatik, eutsi egin behar zaio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan foru politikak bultzatzeari, bai eta foru gobernuaren ekintzan genero ikuspegia modu eraginkorrean ezartzenari ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0120 - Estrategia Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Estrategia
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

Kontuan hartuta Estrategia Zuzendaritzaren misioa diputatu nagusiari Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 aldirako estrategia orokorraren definizioaren eta gauzatzearen lidergoan eta sustapenean laguntzea dela, eta estrategia horren kontzeptualizazioa eta garapena Etorkizuna Eraikizek proposatzen duen lankidetzazko gobernantza-ereduaren esparruan egin dela, aurrekontu-programak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko duen gaitasuna oso garrantzitsua da.
Zehazki, gaitasun hori honetan datza: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Plan Estrategikoaren definizioa eta diseinua, hedapena, jarraipena eta ebaluazioa genero-ikuspegia kontuan hartuz egitea eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren lorpena Planaren misioaren, ikuspegiaren eta balioen eta ezartzen diren ildo estrategikoen definizioan eta proiektu bultzatzaile eta pilotuak zehaztean txertatuz egitea.
Neurri handi batean, Estrategia Zuzendaritzaren aurrekontu-programaren baliabideak Plan Estrategikoa hedatzeko erabiliko dira, ez bakarrik gobernantza-eredua errazteko, baita definitu diren trakzio-proiektuak eta proiektu pilotuak abian jartzeko eta garatzeko ere. Ekimen horiek berdintasunaren ikuspegia txertatu beharko dute definitzen direnetik. Estrategia Zuzendaritzak garatuko dituen beste jarduera-multzo bat lankidetzazko gobernantzan sakontzearekin lotuta egongo da, Etorkizuna Eraikizen bidez.
Zuzendaritzaren aurrekontu-plangintzako prozesuan egindako genero-arrakalen azterketatik, hiru jarduera-eremu handi identifikatu dira, eta aurrekontuan horiei dagozkien ekintzak eta azpiekintzak planifikatu dira:
1) Plan Estrategikoaren hedapenean gobernantza-mekanismo egokiak antolatzeko eta errazteko beharra trakzio-proiektu eta proiektu pilotuetan genero-ikuspegia txertatzeko.
2) Foru Aldundiaren jarduera zeharkako politikekin lerrokatzea EBAn (Emaitzetara Bideratutako Aurrekontua): GJH, genero-berdintasuna eta hizkuntza-berdintasuna. EBA sistemaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuan eta Plan Estrategikoan genero-ikuspegia txertatzea artikulatzen eta errazten da.
3) Trakzio-proiektuaren garapena: Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokia.

Berdintasun-agindu nagusiak:

- Plangintza. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planen helburu, ekintza eta adierazle nagusiak, eta dagozkien ebaluazio-adierazleak, herri-administrazioen plan estrategikoetan sartzea (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 16.5 artikulua). Plan eta programa guztiek, plan estrategikoa barne, genero-ikuspegia txertatuko dute diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuan (4/2019 Foru Arauaren 15.7 artikulua).
- Erakundeen arteko koordinazioa. Genero-ikuspegia foru-administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan sar dadin bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 10.2.c).
- Berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea. Berdintasun-politiken berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzea, eta baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion herritarrei gardentasuna eta kontuak ematea bermatzea (1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.15 artikulua).

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

- P.1: Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea

- HE.4.5: Landa ingurunea eta herri txikiak garatzeko dauden baldintzak sortzea eta aukerak indartzea, besteak beste, emakumeek bertan geratzeko dituzten espektatibak eta beharrak kontuan hartuz.

Ekintza lerroak:

- P.1.1: Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Trakzio-proiektua: Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokia	170.937,11	2,20
Guztira	**170.937,11**	**% 2,20**

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Genero-ikuspegia barne hartzen duten azterlanak eta ikerketak
- Arau, plan edo programen genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioak
- Emakumeen eta gizonen osaera orekatua
- Genero ikuspegia zeharkako aldagai gisa txertatzea.

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	8,50	puntu
Kuantifikazioa:	149.937,11	(% 1,64)
Ordainketa kredituak:	149.937,11	(% 1,93)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0130 - Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Komunikazioa
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Komunikazioko Zuzendaritzaren helburu nagusia da Aldundia herritarrengana hurbiltzea, hauen perzepzioa hobetuz eta eguneratuz, eta sendotzea barne komunikazioa eta Batzar Nagusiekikoa, gardentasunean aurrera pausuak emanez eta langileen inplikazioa areagotuz. Lan honetan ezinbestekoa da genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan. Ezin da barne edo kanpoko komunikaziorako dokumenturik sortu ikuspegi hau txertatu ez bada lehenago.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0140 - Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 400 - Giza Eskubideak eta Kultura Demokratikoa
Funtzionala: 327 - Herritarren bizikidetza sustatzea

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Bizikidetza eta giza eskubideen arloko politikak eta emakume eta gizonen berdintasunerako politikak erlazionatuta daude eta bereziki lotuta ere, izan ere, askotan, eragiten dituzten kolektiboak berdinak baitira. Horregatik, beharrezkoa da, bi politika horien arteko diseinuan eta gauzatzean koordinazioa egotea.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0150 - Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 500 - Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia
Funtzionala: 335 - Euskara

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Dirulaguntzei dagokienez, onartu aurretik, aldez aurreko txosten bat egingo dugu, genero trataeraren ikuspegiaz. Araubide orokorrean legeak ezartzen dituen debekuak eta irizpideak jarraituko ditugu; berariazko araubidean, genero berdintasunaren ikuspegia ongi landua izatea balioetsiko dugu, dirulaguntza mota guztietan. Horrez gain, dirulaguntzaren gaiak hala eskatzen duen guztietan, eskaerak baztertzeko arrazoien artean ipiniko dugu ikuspegi sexista bat agertzen duten proiektuak dirulaguntzetatik kanpo uzteko.
Hala ere, zeharkako politika honetan jauzi berri bat egiteko, Berdintasunerako Plan berria definitzeko zain gaude.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0160 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa
Programa: 600 - Berdintasuna
Funtzionala: 327 - Herritarren bizikidetza sustatzea

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Berdintasunerako organoak zeharkako izaera du. Bere jarduera esparru esklusiboa da, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan foru politikak bultzatzea. Organoari dagokio: berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, udal mailan berdintasunerako politikak sustatzeko neurriak ezartzea, Lurraldean sare eta praktika feministak indartzeko baldintzak sortzen laguntzea, indarkeria matxistaren aurkako foru politikak koordinatu, jarraitu eta ebaluatzea, herritarrak sentsibilizatzea eta gainerako euskal herri administrazioekin solaskidetza eta koordinazioa bermatzea berdintasunaren arloan.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)